

# #euskaldunizate

## JOKOAREN NONDIK NORAKOAK

Tribual denbora pasarako jokoak da. Tribu edo joko desberdinak daude, baita beste hizkuntza batzuetan ere. Kasu honetan ([#Euskaldunizate](#)), ordea, epe jakin batean jokatzea da koska.

5 galderako sortak dira, euskaraz, ez oso konplikatuak. Partida bakoitza beste jokalariren baten kontra parekatzen da, eta irabazi edo galduz gero, puntuetan gora edo behera egiten da.

Donostiako euskaltegien ekimenari esker, kasu honetan sariak ere badaude, baina asmo nagusia da mugikorren denbora pasa arin eta interesgarri bat euskaraz disfrutatzea.

### \*\* Baldintza orokorrak

- Tribual jokoak iOS (Apple) eta Android gailuetan instala daitezke, baina [#Euskaldunizate](#) joko hau Android bertsiorako bakarrik garatu da.
- Jokalariak e-posta bidez, edo Twitter zein Facebook erabiliz eman dezakete izena aplikazioan. Izena emateko bide hori bera baliatuko du antolakuntzak irabazle posibleekin kontaktatzeko (dela e-posta, edo Twitter, edo Facebook). Gure gomendioa: erabiltzailearen profilean e-posta egoki sartuta duzula konprobatzea.
- Twitter edo Facebook erabiltzaileen kasuan, aplikazioak ez du berez jasotzen erabiltzailearen e-posta helbiderik. Baina erabiltzailearen profilean aukera dago hori betetzeko, eta gomendatzen dugu horrela egitea.
- Edozein zalantzaren aurrean, antolatzaileek erabakiko dute zer egin. Antolatzaileak dira: Donostiako Euskara Zerbitzua eta Donostiako Euskaltegi Sarea.

### \*\* Sari nagusia

- Sari nagusia: 500 eurora arteko laguntza matrikulan.
- Irailaren 27a arte garatuko da jokoak. Epea bukatzean, sailkapenean nagusi denak jasoko du sari nagusia.
- Sailkapeneko lehenak saria ez balu nahi, edo harekin kontaktatzea ezinezkoa suertatuko balitz, sailkapeneko hurrengoari egingo zaio eskaintza. 5. sailkatua kontaktatu arte egingo da saiakera saria banatzeko, eta horietan inork ez badu nahi, eman gabe geratuko.

### \*\* Opariak

- Jokoan parte hartzen dutenen artean, beste bost opari zozkatuko dira.
- Zozketa jokoak amaitzean egingo da, irailaren 27an, eta oparia ausaz tokatu zaien bost pertsona horiekin kontaktua egingo du antolakuntzak.
- Opariak egokitu zaienek Donostian pertsonalki hartu beharko dituzte sariak: Euskara Zerbitzuan (Konstituzio plaza 2, 20003 Donostia).
- Opariak jasotzeko epea urriaren 30ean amaituko da.



Deskargatu Tribual jokoak!

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.codesyntax.tribual>